



**EIBARREN ENPRESA-PROIEKTU
BERRIAK GARATZEN LAGUNTZEKO
DIRULAGUNTZEN DEIALDIA**

Lehena: Araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede den dirulaguntza emateko araubidea hau da:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- b) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendu onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- c) Eibarko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udaltzako 2012ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartua (2013ko urtarrilaren 17ko 12. zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).
- d) Deialdi honetan dauden klausulak.

Bigarrena: Dirulaguntzaren xedea.

DLOaren 23.2 artikulua ezarritakoaren arabera, Udal honek enpresa-proiektu berriak garatzen laguntzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten du.

Edozein sektore ekonomikotan enpresa-proiektu berriak sortzea sustatuko da, barne-ekintzailatzako prozesu baten edo jarduereskualdaketa baten ondorioz sortutako ekimenak barne.

**CONVOCATORIA DE
SUBVENCIONES PARA EL APOYO
AL DESARROLLO DE NUEVOS
PROYECTOS EMPRESARIALES EN
EIBAR**

Primero: Normativa reguladora.

La concesión de la subvención objeto de esta convocatoria se regula por:

- a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.
- c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, aprobada por el Pleno Municipal de 26-11-2012 (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 12, de 17 de enero de 2013).
- d) Las cláusulas contenidas en la presente convocatoria.

Segundo: Objeto de la subvención.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 de la LGS, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para la concesión de subvenciones dirigidas a apoyar el desarrollo de nuevos proyectos empresariales.

Se fomentará la creación de nuevos proyectos empresariales en cualquier sector económico, incluyendo aquellas iniciativas surgidas como resultado de un proceso de intraemprendimiento o de un traspaso de actividad.



Hirugarrena: Dirulaguntza egozten zaien aurrekontu-kredituak.

Dirulaguntza hau emateko, Udal Aurrekontuaren zenbateko hauek erabiliko dira:

PARTIDA: "Dirulaguntzak beste enpresa batzuei". 1.1000.471.02.241.00.

ZENBATEKOA: 76.436,75 €.

Baimendutako kreditua agortu ondoren erantzun gabeko dirulaguntza eskaerak baldin badaude, eta eskumena duen organoak hala erabakiz gero, handitu ahal izango da dirulaguntzen aurrekontu-partida, ebatzi gabekoei erantzuteko.

Partida-handitzea ezingo da deialdiari egotzitako zenbatekoaren % 20 baino handiagoa izan.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izateko baldintza da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditu-gehikuntza baten ondorioz kreditua erabilgarri deklaratzeari, hala bada kasua, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren.

Laugarrena: Dirulaguntzak emateko prozedura

Dirulaguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

"Ebaluazio bakoiztu"tzat ulertzen da dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura, zeinean espedienteak aurkeztu ahala tramitatzen eta ebazten joaten diren, baldin eta horretako kreditu erreserbatua badago.

Tercero: Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención.

Se destinarán a la concesión de esta subvención las siguientes cantidades del presupuesto de la Corporación:

PARTIDA: "Subvenciones a otras empresas". 1.1000.471.02.241.00.

IMPORTE: 76.436,75 €.

Si una vez agotado el crédito autorizado existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

La ampliación no podrá ser superior al 20 % del importe consignado en la convocatoria.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito como consecuencia de una ampliación de crédito, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda, en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Cuarto: Procedimiento de concesión.

La concesión se efectuará en régimen de concesión directa mediante el sistema de evaluación individualizada.

Se entenderá por "evaluación individualizada" el procedimiento de concesión en el que los expedientes serán tramitados y resueltos conforme se vayan presentando y en cuanto se disponga de crédito reservado para ello.



Bosgarrena: Onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.

Onuradunek ezin izango dute sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik bete, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera zigortuta egon ere.

Dirulaguntza hauek eskuratzeko aukeratik kanpo geratzen dira:

- a) Partaidetza publikoa duten enpresak, sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.
- b) Aktibitate edota negozio hauek:
 - Tabako-salmentarako dendak.
 - Gasolindegia.
 - Jolas-, joko- eta apustu-aretoak.
 - Farmaziak.
 - Ibilgailuen kontzesionarioak.
- c) Merkataritza- eta elikadura-kate handiak.
- d) Lokal berean zeuden eta jarduera bera zuten beste enpresa batzuetatik sortutakoak, lehen mailako senideen artean titulartasuna aldatze hutsetik eratuak, aldaketa horren aurreko 18 hilabeteetan.

Ez dira kanpo geratuko lehen mailako senideen arteko titulartasun-aldaketak honako arrazoi hauengatik gertatzen badira: erretiroa, titularraren ezintasuna edo heriotza, edo ezinbesteko arrazoiak.

- e) Azken 2 ekitaldietan beren kontura antzeko jarduera bat garatu duten enpresak edo pertsonak.
- f) Aurreko deialdietan dirulaguntza hau bera jaso duten enpresak.

Quinto: Requisitos que deberán reunir los/as beneficiarios/as para la obtención de la subvención.

Los/as beneficiarios/as no deberán estar cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni estar sancionados en virtud de la ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Quedarán excluidas de la posibilidad de obtener estas subvenciones:

- a) Las Empresas con participación pública, las Sociedades Públicas y las entidades de derecho público.
- b) Las siguientes actividades o negocios:
 - Tiendas de venta de tabaco.
 - Gasolineras.
 - Salones recreativos, de juegos y apuestas.
 - Farmacias.
 - Concesionarios de vehículos.
- c) Grandes cadenas comerciales y de alimentación.
- d) Empresas surgidas a partir del mero cambio de titularidad entre familiares de primer grado de otras ya existentes en el mismo local y misma actividad, en los 18 meses anteriores a dicho cambio.

No serán objeto de exclusión los cambios de titularidad entre familiares de primer grado por causas como jubilación, incapacidad o fallecimiento de el/la titular o causas de fuerza mayor.

- e) Empresas o personas que hayan desarrollado por cuenta propia una actividad de similares características a lo largo de los últimos 2 ejercicios.
- f) Empresas que hayan sido beneficiarias de esta misma subvención en convocatorias anteriores.



Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13.2 artikulua aipatzen duen debeku horietako bat bera ere ez duten pertsona fisikoek edo juridikoek, sozietate zibilek eta ondasun-erkidegoek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lantokia Eibarren egotea.
- b) Jarduerak, 2024ko abenduaren 31 baino lehen, dagokion gaikuntza-titulua aurkeztu beharko du Udaleko Hirigintza Sailean: jarduera sailkatuaren lizentzia edo jardueraren aldez aurreko jakinarazpena.

Etxebizitza batean edo enpresa-inkubagailu baten instalazioetan egiten diren jarduera ekonomikoek ere dagokion gaikuntza-titulua eskatu beharko dute.

- c) Enpresaren jarduera nagusia 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean hasi izana. Horretarako, erreferentziatzat hartuko da dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta.
- d) Jarduera/enpresa gutxienez 12 hilabetez altan mantentzea. Horretarako, erreferentziatzat hartuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
- e) Gutxienez lanpostu bat sortzea, sustatzailearena barne.
- f) Lokala alokatuz gero, alokairu-kontratua gutxienez 12 hilabetekoa izan beharko da.

Podrán acceder a esta subvención las personas físicas, jurídicas, sociedades civiles y comunidades de bienes, que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS.

Además deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Que el centro de trabajo esté en Eibar.
- b) La actividad deberá tener presentado, antes del 31 de diciembre de 2024, el título habilitante correspondiente en el departamento de Urbanismo del Ayuntamiento: licencia de actividad clasificada o comunicación previa de la actividad.

Las actividades económicas que se desarrollen en un domicilio o en las instalaciones de una incubadora de empresas están obligadas también a solicitar el título habilitante correspondiente.

- c) Haber iniciado la actividad principal de la empresa entre el 1 de noviembre de 2023 y el 31 de octubre de 2024. Para ello, se tomará como referencia el alta en el IAE correspondiente.
- d) Mantener la actividad/empresa en alta por un periodo mínimo de 12 meses. Para ello, se tomará como referencia el IAE.
- e) Crear al menos un puesto de trabajo, incluida la persona promotora.
- f) En caso de alquiler del local, el contrato de alquiler deberá tener al menos una duración de 12 meses.



g) Eibarko Udalarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin dituen obligazioak egunean edukitzea. Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, erakunde eskatzaileak ez ezik hura osatzen duten kideek ere egunean izan beharko dituzte ordainketak Udalarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.

h) Barne-ekintzailtzako prozesu baten ondorioz sortutako negozio berrien kasuan, honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra alta emandako JEZ bereizia izatea.
- Enpresaren alde aurreko jarduerari eustea.
- Gutxienez lanpostu berri bat sortzea, sustatzailearena barne.

g) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Eibar, la Seguridad Social y Hacienda.

En el caso de sociedades civiles y comunidades de bienes, además de la entidad solicitante, los miembros que la integren deberán estar al corriente de pagos con el Ayuntamiento, la Seguridad Social y Hacienda.

h) En el caso de nuevos negocios surgidos como resultado de un proceso de intraemprendimiento, deberán cumplir además los siguientes requisitos:

- Contar con un IAE diferenciado, dado de alta entre el 1 de noviembre de 2023 y el 31 de octubre de 2024.
- Mantener la actividad previa de la empresa.
- Crear al menos un nuevo puesto de trabajo, incluida la persona promotora.

Seigarrena: Eskerak aurkezteko epea eta tokia.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak eta haiei erantsitako dokumentazioa aurkezteko epea deialdi honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta **2024ko azaroaren 29an amaituko da (egun hori barne)**. Eskabidea deialdia egiten duen organoari zuzenduko zaio eta onuradunak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak sinatuko du.

Dirulaguntza-eskaerak **elektronikoki** egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Sexto: Plazo y lugar en que deben presentarse las solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo represente, junto con la documentación anexa, comenzará al día siguiente de la publicación del extracto de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el **29 de noviembre de 2024 (inclusive)**.

Las solicitudes de subvención deberán realizarse **electrónicamente** a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de IZENPE, etc.).



Zazpigarrena: eskaerarekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak eta argibideak.

Dirulaguntza hau tramitatzeke, aplikagarri den araudi erregulatuak eskatzen dituen hainbat datu eta dokumentu behar dira, interesdunek aurkeztu behar dituztenak.

Hala ere, interesdunek honako hauek ez aurkezteko eskubidea dute (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidaren 39/2015 Legearen 28. artikulua):

- Eibarko Udalaren esku dauden datuak edo dokumentuak.
- Beste edozein administrazio egindako dokumentuak.
- Dokumentu originalak (salbu eta, salbuespen gisa, aplikagarria den araudiak kontrakoa ezartzen badu).
- Interesdunak lehenago edozein administrazioan aurkeztutako datuak edo dokumentuak.

Era berean, administrazio publikoek dokumentuak elektronikoki biltzeko betebeharra dute, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikulua).

Alde horretatik, eta dirulaguntza hau tramitatzeke, datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez Eibarko Udalak administrazio publiko eskudunei honako informazio hau kontsultatuko die, betiere interesdunak ez badio berariaz aurka egiten horiek erabiltzeari; kasu horretan, interesdunak dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Legezko ordezkariaren kasuan, ordezkari Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.

Séptimo: documentos e informaciones que deben acompañar a la solicitud.

La tramitación de esta subvención requiere de diversos datos y documentos exigidos por la normativa reguladora aplicable que deben ser aportados por las personas interesadas.

No obstante, las personas interesadas tienen derecho a no aportar (art. 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas):

- Datos o documentos que estén en poder del Ayuntamiento de Eibar.
- Documentos que hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.
- Documentos originales (salvo que, con carácter excepcional, la normativa reguladora aplicable establezca lo contrario).
- Datos o documentos que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada en cualquier Administración.

Así mismo, las Administraciones Públicas tienen el deber de recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto (art. 155 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público).

En este sentido, y para la tramitación de esta subvención, el Ayuntamiento de Eibar consultará a través de plataformas de intermediación de datos o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes la siguiente información, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes:

- En caso de representación legal, estar registrado/a en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Gipuzkoako, Bizkaiko eta/edo Arabako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- MINIMIS dirulaguntzen eta laguntzen kontsulta.

Ondorengoak ofizioz egiaztatuko dira:

- Eibarko Udalarekiko ordainketak egunean daudela.
- Entitate onuradunak, 2024ko abenduaren 31 baino lehen, Eibarko udalean dagokion gaikuntza-titulua aurkeztuta izatea: jarduera sailkatuaren lizentzia edo jardueraren alde aurreko jakinarazpena.
- Eskualdaketa gertatuz gero, 2024ko abenduaren 31ren aurretik, jarduera sailkatuko titulartasun-aldaketaren aurretiazko komunikazioa aurkeztua izatea.

Kontsulta ezin bada egin datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, Eibarko Udalak, salbuespen gisa, dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Elektronikoki bete behar den formularioari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

- a) Eskaera egiten duenaren nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:
- Pertsona fisikoek: NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
 - Pertsona juridikoek: entitatearen eraketa eta estatutuak jasotzen dituen eskritura edo dokumentua, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta

- Estar al corriente de pago de obligaciones con la Seguridad Social.
- Estar al corriente de obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Gipuzkoa, Bizkaia y/o Álava.
- Consulta de Subvenciones y Ayudas con MINIMIS.

Las siguientes comprobaciones se realizan de oficio:

- Estar al corriente del pago con el Ayuntamiento de Eibar.
- Que la actividad beneficiaria tenga en el Ayuntamiento de Eibar, antes del 31 de diciembre de 2024, el título habilitante correspondiente: presentación de comunicación previa de la actividad o licencia de actividad.
- En caso de traspaso, tener presentada, antes del 31 de diciembre de 2024, la comunicación previa de cambio de titularidad de actividad clasificada.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, el Ayuntamiento de Eibar podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Esta es la documentación a adjuntar al formulario que se cumplimentará electrónicamente:

- a) Documentos acreditativos de la personalidad jurídica de el/la solicitante:
- Personas físicas: DNI o documento equivalente.
 - Personas jurídicas: escritura o documento en que conste la constitución de la entidad y los estatutos, debidamente inscritos en el Registro Mercantil o en el que corresponda.



- Sozietate zibilek: sozietate zibilaren eraketa-kontratua, sozietate zibila osatzen duten pertsona guztien IFZa eta NAN aedo agiri baliokidea.
 - Ondasun erkidegoek: ondasun-erkidegoa eratzeko kontratua eta IFZa. Ondasun erkidegoak IFZrik ez badu, hura osatzen duten pertsona guztien NANA edo horren balio bereko dokumentua.
- b) Legezko ordezkariaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko agiria eta ordezkariaren dokumentazio-egiaztapena. Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz egiaztatu ahal izango da. Ordezkaritza Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.
- c) Banku-kontuaren titulartasuna frogatzen duen agira; eskatzaileak izan behar du kontuaren titularra. Agiri hauetako edozeinek balio du horretarako: bankuko kontu-laburpena, libreta, bankuak egindako egiaztageria, edo "Titular-kontua" izeneko orria (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.
- d) Erakunde eskatzailearen jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ziurtagiri historikoa.
- e) Zergak Gipuzkoa, Bizkaia edo Araba ez den beste lurralde batean ordaintzen badira, eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa.
- f) DEBEGESAK baliozkotutako bideragarritasun-plan edo jarduera-memoria-proiektu bat, www.eibar.eus udal webgunean eskuragarri egongo den
- Sociedades civiles: contrato de constitución de la sociedad civil, NIF y DNI o documento equivalente de todas las personas que constituyan la sociedad civil.
 - Comunidades de bienes: contrato de constitución de la comunidad de bienes y NIF. Si la comunidad de bienes carece de NIF, DNI o documento equivalente de todas las personas que la constituyan.
- b) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la misma. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho. No será necesario presentar esta documentación en caso de que la representación esté registrada en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- c) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de el/la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de el/la solicitante. Será válido, cualquiera de los siguientes documentos: extracto bancario; libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o el impreso "Titular-cuenta" (disponible en la página web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.
- d) Certificado histórico del Impuesto sobre Actividades Económicas de la entidad solicitante de la subvención.
- e) En caso de tributar en Territorios diferentes a Gipuzkoa, Bizkaia o Álava, certificación acreditativa emitida por la Hacienda competente de que el/la solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.
- f) Plan de viabilidad o memoria-proyecto de actividad validado por Debegesa según modelo disponible en la página web municipal, www.eibar.eus, donde se



ereduaren arabera, sustatzailearen CVA barne. Aurkeztutako dokumentuak dokumentu-ereduan eskatutako puntu guztiak garatu beharko ditu zehatz-mehatz.

Dokumentazioa DEBEGESAk baliozkotu beharko du, dirulaguntza eman baino lehen. Udalak DEBEGESAri eskatuko dio baliozkotuta entregatzen ez diren enpresa-proiektuen dokumentuak baliozkotzeko.

- g) Dirulaguntzaren eskaeraren xede den jarduerarako beste dirulaguntzarik eskatu edo lortu bada, beste erakunde edo instituzio batzuetan jarduera berbererako egindako dirulaguntza eskabideen zerrenda, edo, hala balegokio, jasotako dirulaguntzena, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua zehaztuta; horrela, ez da bikoiztasunik gertatuko dirulaguntzak ematean eta baliabideen esleipena modurik egokienean izatea ahalbidetuko da.

- h) Sortutako lanpostuen (ekintzailearena barne) lan-kontratua edo autonomoen alta-dokumentua.

Barne-ekintzailetzako prozesu baten ondorioz sortutako ekimenen kasuan, ekimen berriari lotutako pertsonaren edo pertsonen funtzio nagusien zerrenda ere aurkeztu beharko da.

- i) Jardueraren eskualdaketatik eratorritako gastuetarako, enpresa-ondorengotza/erreleboa behar bezala egiaztatzen duen dokumentazioa; bertan eragiketaren zenbatekoa adieraziko da.
- j) Alokairu-gastuetarako, bi alderdiek behar bezala sinatutako alokairu-kontratua, eta gutxienez ordaindutako ordainagiri bat. Ordainketa transferentzia edo helbideraketa bidez egin beharko da.

deberá incluir el CV de la persona promotora. El documento presentado deberá desarrollar con detalle todos los puntos incluidos en el modelo de documento.

La documentación deberá estar validada previa a la concesión de la subvención. El Ayuntamiento se encargará de solicitar a DEBEGESA la validación de los documentos de los proyectos empresariales que no se entreguen validados.

- g) En caso de haber solicitado u obtenido otras subvenciones para la actividad objeto de subvención, relación de solicitudes de subvención formuladas ante otras instituciones, organismos, etc. o en su caso, de las que estuvieran otorgadas, detallando su cuantía y finalidad, al objeto de evitar duplicidades en la concesión de subvenciones y posibilitar la más adecuada asignación de los recursos.

- h) El contrato de trabajo o el documento de alta en autónomos de los puestos de trabajo creados (incluida la persona emprendedora).

En el caso de las iniciativas surgidas como resultado de un proceso de intraemprendimiento, deberá presentarse además la relación de las principales funciones de la(s) persona(s) vinculada(s) a la nueva iniciativa.

- i) Para gastos derivados del traspaso de negocio, documentación que acredite suficientemente la sucesión/relevo empresarial, en el que se indique el importe de la operación.
- j) Para gastos de alquiler, contrato de alquiler debidamente firmado por ambas partes y al menos un recibo abonado. El pago deberá realizarse mediante transferencia bancaria o domiciliación.



- k) Lokala erosteko gastuetarako, salmentaren kontratua eta ordainketa egin izanaren ziurtagiria.
- l) Negozioa martxan jarri eta garatzeko gastu eta inbertsioetarako, deialdi honetako 8.artikuluari jasotako kontzeptuei buruzko fakturak eta ziurtagiriak.

Baldin eta eskabidea aurkezten denean aurreikusitako obra eta inbertsioak gauzatu gabe badaude, dagozkien aurrekontuak aurkeztuko dira.

Zortzigarrena: Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Ezarritako baldintzak betetzen dituen eskabide bakoitzaren gehieneko zenbatekoa 6.000 €-koa izango da. Zenbateko hori honako kasu hauetan handitu ahal izango da:

- 500 €, sustatzaileen edo bazkideen erdiak, gutxienez, emakumeak badira.
- 500 €, sortutako lanpostu bakoitzeko, pertsona ekintzaileak eurak kontuan hartu gabe.
- 500 €, Eibarko Udalaren hiru inkubategietako batean kokatzeagatik:
 1. Azitainen kokatutako Eibargunea zerbitzu-enpresen inkubagailua.
 2. Debegesan kokatutako enpresa berritzaileentzako inkubagailua.
 3. Teknikerren kokatutako oinarri teknologikoko enpresentzako inkubagailua.
- 3.000 €, Eibarrentzat estrategikoak diren sektoreetan kokatutako enpresa izateagatik: industria, industriari lotutako zerbitzuak, fabrikazio aurreratua, doitasun-ingeniaritza, digitalizazioa, klima-aldaketa eta energia jasagarria, fintech edo kirolari aplikatutako teknologia.
- 1.500 €, Errebaleko merkatuko postu finkoetakoren batean kokatzeagatik.

- k) Para gastos de compra del local, contrato de compra-venta y justificante de pago.

- l) Para otros gastos e inversiones para la puesta en marcha y desarrollo del negocio, facturas y justificantes de pago referidos a los conceptos subvencionables recogidos en el artículo 8 de esta convocatoria.

En caso de que haya obras e inversiones previstas y sin ejecutar a fecha de presentación de la solicitud, se presentarán los presupuestos correspondientes.

Octavo: Importe máximo de la subvención y gastos subvencionables.

El importe máximo de cada solicitud que cumpla los requisitos establecidos será de 6.000 €. Este importe podrá ser incrementado en los siguientes casos:

- 500 €, si, al menos, la mitad de las personas promotoras o socias son mujeres.
- 500 € por cada puesto de trabajo creado, sin tener en cuenta las propias personas emprendedoras.
- 500 € por situarse en alguna de las tres incubadoras del Ayuntamiento de Eibar:
 1. Incubadora de empresas de servicios Eibargunea situada en Azitain.
 2. Incubadora para empresas innovadoras situada en Debegesa.
 3. Incubadora para empresas de base tecnológica situada en Tekniker.
- 3.000 € por tratarse de una empresa encuadrada en sectores estratégicos para Eibar: industria, servicios anexas a la industria, fabricación avanzada, ingeniería de precisión, digitalización, cambio climático y energía sostenible, fintech o tecnología aplicada al deporte
- 1.500 € por situarse en alguno de los puestos fijos del mercado de Errebal.



Gehikuntza horiek metatu ahal izango dira.

BEZa eta beste zerga eta tasa batzuen ordainketa eta atxikipena ez dira inolaz ere diruz lagunduko.

Diruz lagunduko diren gastuak izango dira laguntzaren helburua lortzeko egiten direnak; horiek egin direla frogatzeko dokumentazio sinesgarria (faktura), gastu-ordainketa eta gastuok ezarritako epearen barruan egin direla erakutsiko da:

